

Bizkaiko Foru Aldundiaren **ERABAKIA**, zeinaren bidez ematen baita Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2024. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 10/2023 Foru Arauan aurrez ikusitako dirulaguntza izenduna Bilboko Koral Elkarteari, erakundeak 2024. urtean egitekoak diren jardueren zati bat finantzatzeko eta baimentzen baita hura arautzen duen hitzarmena sinatzeko.

Andre agurgarria:

Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailaren eskumenekoa da, besteak beste, Bizkaiko legatu historikoa eta kulturala ikertzea, zaintzea, zabaltzea eta kudeatzea, baita legatu horren balio nagusiak gizarteratzeko eta transmititzeko programak garatzea ere. Horretarako, sail honek Bizkaiairen eta bere Foru Aldundiaren izen ona modu berezian zabaltzeko arte-adierazpenak antolatzen eta zabaltzen laguntzen du.

Bilboko Koral Elkartek interes handiko lana egiten du sortu zenean ezarri zitzaizkion xedeen esparruan. Xede horiek estatutuetako 2. artikuluan jasotzen dira eta ondokoak dira: oro har musika, eta batez ere ahozko musika lantzea, horiei lotutako bestelako adierazpen artistikoak ere jorratuz; eta esparru horretan, koruen trebakuntza, mantentzea eta sustapena funtsezko helburutzat jotzen dira.

ACUERDO de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se concede la subvención nominativa prevista en la Norma Foral 10/2023, de 29 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2024 a favor de la Sociedad Coral de Bilbao para la financiación parcial de sus actividades durante el año 2024 y se autoriza la suscripción del convenio regulador de la misma.

Ilma. Sra.:

Entre las competencias del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia figuran investigar, conservar, difundir y gestionar el legado histórico-cultural de Bizkaia, así como desarrollar programas destinados a la socialización y a la transmisión de sus valores principales. A tal fin, este Departamento organiza y colabora en la difusión de diferentes manifestaciones artísticas que sirven para divulgar de una forma especial el buen nombre de Bizkaia y de su Diputación Foral.

La Sociedad Coral de Bilbao realiza una labor de extraordinario interés, enmarcada en los fines fundacionales para los que fue creada y recogidos en el artículo 2 de sus estatutos. Esto es, el cultivo de la música en general, especialmente la vocal, sin perjuicio de atender a cualesquiera otras manifestaciones artísticas relacionadas con la misma; en este marco, la formación, el mantenimiento y la promoción de sus coros se declaran objetivos fundamentales.





Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina onesten duen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bosgarren xedapen gehigarriaren bigarren zenbakian haxe xedatu da: Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmenak egin ahal izango ditu zuzenbide pribatuari loturiko pertsona fisiko eta juridikoekin, baldin eta hitzarmenaren helburua ez badago jasota herri Sektore Publikoko Kontratuen Legean edo administrazio-arau berezietan.

Hitzarmen hau Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dago, haren edukia kontuan hartuta. Izan ere, lege horren 6.2 artikuluan adierazten denez, haren aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuaren peko pertsona fisiko zein juridikoekin egiten dituzten hitzarmenak, haien edukia ez badago sartuta lege honetan edo nahiz administrazio-arau berezietan araututako kontratuen edukien artean.

Bestetik, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridikoa arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 26.1 artikulua, zuzeneko dirulaguntzei buruzko kapituluaren barruan, xedatzen du hitzarmenak izango direla, hain zuzen ere, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan norbaiten izenean aurreikusita dauden dirulaguntzak bideratzeko ohiko tresnak.

Horretarako, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2024. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 10/2023 Foru Arauak (dirulaguntza izendunen eranskinean, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailari buruzko 4. epigrafean) jasotzen du Bilboko Koral Elkarteari (IFZ G48130215) EHUN ETA HOGEITA ZAZPI MILA EUROko (127.000,00 €) foru dirulaguntza emango zaiola 0405, 334104, 45100, aurrekontu-partidaren kargura (2007/0224 proiektua), 2024. urtean bere jardueren finantzaketa partziala egiteko.

La Disposición Adicional Quinta del Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, en su apartado 2 señala que la Diputación Foral de Bizkaia podrá celebrar convenios con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su objeto no esté comprendido en el de los contratos regulados en la ley de Contratos del Sector Público o en normas administrativas especiales.

El presente convenio se encuentra excluido como tal, y en función de su contenido, del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, dado que, tal y como señala su artículo 6.2 quedan excluidos del ámbito de dicha ley los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales.

Por su parte, el artículo 26.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, dentro del capítulo relativo a las subvenciones directas, prevé que sean los convenios los instrumentos habituales para canalizar las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

A tales efectos, la Norma Foral 10/2023, de 29 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el ejercicio 2024, en el anexo de Subvenciones Nominativas, dentro del epígrafe 4 relativo al departamento foral de Euskera, Cultura y Deporte, recoge la concesión de una subvención foral por importe de CIENTO VEINTISIETE MIL EUROS (127.000,00 €) con cargo a la partida presupuestaria 0405, 334104, 45100, proyecto 2007/0224, en favor de la Sociedad Coral de Bilbao (NIF G48130215) para la financiación parcial de sus actividades durante el año 2024.





Kultur Ekintzako Zerbitzuak aurrekontuko partida hori kudeatzeko ardura du eta, ondorioz, programa hori kudeatzekoa ere bai. Hori dela-eta, proposatzen da erakunde horrekin sinatuko den hitzarmen bat onartzea, non zehaztuko den elkarte horrek zer eskubide eta betebeharrak izango dituen 2024ko ekitaldirako foru dirulaguntza baten onuraduna izatearen ondorioz.

Azaldutakoa dela bide, ikusita zer ezartzen duten Bizkaiko Kondeira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17., 39. eta 66. artikuluek eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudia onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak, eta erabiliz Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorren testu batekina onartzen duen 2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bosgarren xedapen gehigarriak eta harekin bat datozenek emandako ahalmenak, behean sinatzen duenak zuri erabaki hau aurkezten dizu, bidezkotzat jotzen baduzu, Bizkaiko Foru Aldundiak aztertu dezan eta, hala badagokio, onetsi dezan.

ERABAKIA

LEHENENGOA.- Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2024. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 10/2023 Foru Arauan aurrez ikusitako zenbateko jakineko dirulaguntza izenduna ematea BILBOKO KORAL ELKARTEARi (NIF G48130215), zenbateko jakineko EHUN ETA HOGEITA ZAZPI MILA (127.000,00) eurokoa, erakundeak 2024. urtean egingo dituen jardueren zati bat finantzatzeko. Dirulaguntza hori 0405 G/334104/45100, 2007/0224 proiektua, aurrekontu-partidari egotziko zaio.

BIGARRENA.- Lehenengo puntuaren arabera emandako dirulaguntza izenduna arautzen duen hitzarmen bat izenpetzeko baimena

Desde el Servicio de Acción Cultural, centro gestor responsable de esa partida presupuestaria, y por lo tanto de ese programa, se plantea ahora la aprobación de un convenio con la citada entidad en el que se instrumentalicen los derechos y obligaciones que se derivan de la adquisición por parte de esa asociación de la condición de beneficiario de subvención foral de cara al ejercicio 2024.

En virtud de lo expuesto y vistos los artículos 17, 39, 66 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 131/2020, de 29 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, y en uso de las facultades conferidas en virtud de la Disposición Adicional Quinta y concordantes del Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, quien suscribe eleva a V.I., en el sentido de que si lo estima pertinente someta a la consideración de la Diputación Foral de Bizkaia, para su estudio y aprobación, si procede, el siguiente

ACUERDO

PRIMERO.- Conceder la subvención nominativa prevista en la Norma Foral 10/2023, de 29 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2024, a favor de la SOCIEDAD CORAL DE BILBAO (NIF G48130215) por importe cierto de CIENTO VEINTISIETE MIL (127.000,00) euros para la financiación parcial de las actividades a desarrollar por la entidad durante el año 2024, que se imputará a la partida presupuestaria 0405 G/334104/45100, proyecto 2007/0224.

SEGUNDO.- Autorizar la suscripción de un convenio, que se adjunta como anexo al presente acuerdo, por el que se regula la subvención





ematea. Hitzarmena erabaki honi eranskin gisa atxiki zaio.

HIRUGARRENA.- Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari ahalmena emango zaio aipatutako hitzarmena sinatzeko eta hitzarmena garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

LAUGARRENA.- Hitzarmen honen Jarraipen Batzordearen ondorioetarako:

A) Honako hauek izendatzen dira Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari:

- Kulturako zuzendari nagusia, edo berak eskuordetutako pertsona.
- Kultur Ekintzako Zerbitzuko burua edo berak eskuordetutako pertsona.

B) Onartu egiten da Bilboko Koral Elkartearen bere ordezkari gisa honako pertsona hauek izendatzeko egin duen proposamena:

- Iñigo Alberdi Amasorrain jauna.
- Nekane Díaz Helguera andrea.
-

BOSGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea Euskara, Kultura eta Kirol Foru Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuari eta BILBOKO KORAL ELKARTEARI.

nominativa concedida de conformidad con el punto primero.

TERCERO.- Facultar a la diputada foral titular del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte para la firma del referido convenio, así como para que dicte las disposiciones necesarias para su desarrollo.

CUARTO.- A los efectos de la Comisión de Seguimiento de este convenio:

A) Se designan como representantes de la Diputación Foral de Bizkaia:

- La directora general de Cultura o persona en quien delegue.
- La jefa del Servicio de Acción Cultural o persona en quien delegue.

B) Se acepta la propuesta de Sociedad Coral de Bilbao de designar como sus representantes a:

- D. Iñigo Alberdi Amasorrain.
- Dña. Nekane Díaz Helguera.

QUINTO.- Notificar el presente Acuerdo al Servicio de Acción Cultural del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte y a SOCIEDAD CORAL DE BILBAO.

Kultur Ekintzako Zerbitzuko burua / La jefatura del Servicio de Acción Cultural MONTSERRAT PETRALANDA GORROTXATEGI

O. E. / Vº Bº

Kultura Zuzendaritza nagusia / La dirección general de Cultura BEGOÑA DE IBARRA ZUAZO

Aurreko tramitean ezarri denarekin bat, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio.

/ De conformidad con el trámite precedente, elévese al Consejo de Gobierno.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua / La Diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte. LEIXURI ARRIZABALAGAARRUZA



HITZARMENA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN 2024. URTEKO AURREKONTU OROKORREI BURUZKO ABENDUAREN 29KO 10/2023 FORU ARAUAN AURREZ IKUSITAKO DIRULAGUNTZA IZENDUNA ARAUTZEN DUENA, BILBOKO KORAL ELKARTEAREN ALDE, ERAKUNDEAK 2024. URTEAN EGINGO DITUEN JARDUERAK PARTEZ FINANTZATZEKO.

Bilbon, sinadura elektronikoaren egunean

BILDU DIRA

Batetik, Leixuri ARRIZABALAGA ARRUZA, andre txit argia, BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua den aldetik.

Bestetik, José Miguel LANZAGORTA CASANS jauna, BILBOKO KORAL ELKARTEAREN izenean eta haren ordezkari gisa, elkarteko presidentea den aldetik.

HONELA JARDUN DUTE

Lehenengoak, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua den aldetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren arabera dagozkion ahalmenak erabiltzaile, eta Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onetsi duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuan ezarritakoa garatzeko dagozkion eskumenez baliatuz.

Bigarrenak, Bilboko Korral Elkarteko presidentea den aldetik, elkartearen estatutueta xedatutakoa betetz. Elkartea 1886ko abuztuaren 3an eratu zen.

Alderdiek, euren karguen berezko funtzioak betetz, hitzarmen hau sinatzeko gaitasun osoa aitortu diote elkarri eta, horretarako, hauxe

AZALTZEN DUTE

LEHENENGOA.- Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailaren eskumenen artean Bizkaiko legatu historikoa eta kulturala ikertzea, zaintzea, zabaltzea eta kudeatzea, baita legatu horren balio nagusiak gizarteratzeko eta transmititzeko

CONVENIO POR EL QUE SE REGULA LA SUBVENCIÓN NOMINATIVA PREVISTA EN LA NORMA FORAL 10/2023, DE 29 DE DICIEMBRE, DE PRESUPUESTOS GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA PARA EL AÑO 2024, A FAVOR DE LA SOCIEDAD CORAL DE BILBAO, PARA LA FINANCIACIÓN PARCIAL DE LAS ACTIVIDADES A REALIZAR POR LA ENTIDAD DURANTE EL AÑO 2024.

En Bilbao, en la fecha de la firma electrónica

REUNIDOS

De una parte, la Ilma. Sra. Dña. Leixuri ARRIZABALAGA ARRUZA, en su calidad de diputada foral de Euskara, Cultura y Deporte de la DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA.

De otra, Don José Miguel LANZAGORTA CASANS, en nombre y representación de la SOCIEDAD CORAL DE BILBAO, en su calidad de presidente de la entidad.

INTERVIENEN

La primera, en su calidad de diputada foral de Euskara, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, a tenor de las facultades que le son propias en virtud de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, y de las competencias que le corresponden en desarrollo de lo establecido en el decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 131/2020, de 29 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Euskara, Cultura y Deporte.

El segundo, en calidad de presidente de la Sociedad Coral de Bilbao, constituida el 3 de agosto de 1886, a tenor de lo dispuesto en los Estatutos de dicha entidad.

Ambas partes, en el ejercicio de las funciones propias de sus cargos, reconociéndose mutua y plena capacidad para otorgar el presente convenio y al efecto,

EXPONEN

PRIMERO.- Que entre las competencias del Departamento Foral de Euskara, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia figuran investigar, conservar, difundir y gestionar el legado histórico-cultural de Bizkaia, así como desarrollar programas destinados a la



programak garatzea ere. Horretarako, Bizkaiaren eta lurralde horretako Foru Aldundiaren izen ona modu berezian zabaltzeko adierazpen artistikoak antolatzen eta zabaltzen laguntzen du sail honek.

BIGARRENA.- Bilboko Koral Elkartek interes handiko lana egiten du sortu zenean ezarri zitzaizkion xedeen esparruan. Xede horiek estatutueta 2. artikuluan jasotzen dira eta ondokoak dira: oro har musika, eta batez ere ahozko musika lantzea, horiei lotutako bestelako adierazpen artistikoak ere jorratuz; eta esparru horretan, koruak trebatu, mantendu eta sustatzea.

Erakundeak 2024an egin beharreko jardueren artean, honako hauek daude:

- Musika-Música jaialdian parte hartzea Bilboko Arriaga Antzokian eta Euskalduna Jauregian.
- Guridi: Magical Bidaia (Bilbo).
- Kontzertua Torrelavegan (Kantabria).
- IX Bilbao Musika (Bilbo).
- Requiem (Lizarra).
- Chillida Giaccona (Bilbo).
- Zubiaurreko pasioa (Azkoitia).
- BBk Kantuz Txiki (Bilbo).
- Saturraran (Bilbo).
- San Juan de Dios Ospitalearen 100. urteurrena (Santurtzi).
- Carmina Burana (Zornotza eta Areatza).
- Errukiako Etxe Santuaren 250. urteurrena (Bilbao).
- Non dira haurrak! (Bilbo).
- Bilboko Korala Gertutik (Bilbo).
- Bizkaia kantuan (Bizkaia).
- Ura bere bidean (Barakaldoko BEC).

socialización y a la transmisión de sus valores principales. A tal fin, este Departamento organiza y colabora en la difusión de diferentes manifestaciones artísticas que sirven para divulgar de una forma especial el buen nombre de Bizkaia y de su Diputación Foral.

SEGUNDO.- Que la Sociedad Coral de Bilbao realiza una labor de extraordinario interés, enmarcada en los fines fundacionales para los que fue creada y recogidos en el artículo 2 de sus estatutos. Esto es, el cultivo de la música en general, especialmente la vocal, sin perjuicio de atender a cualesquiera otras manifestaciones artísticas relacionadas con la misma; en este marco, la formación, el mantenimiento y la promoción de sus coros se declaran objetivos fundamentales.

Entre las actividades a realizar por la entidad durante 2024 se encuentran:

- Participación en el festival Musika-Música en el Teatro Arriaga y Palacio Euskalduna de Bilbao.
- Guridi: Magical Bidaia (Bilbao).
- Concierto en Torrelavega (Cantabria).
- IX Bilbao Musika (Bilbao).
- Requiem (Estella).
- Chillida Giaccona (Bilbao).
- Pasión de Zubiaurre (Azkoitia).
- BBk Kantuz Txiki (Bilbao).
- Saturraran (Bilbao).
- 100 aniversario del Hospital San Juan de Dios (Santurtzi).
- Carmina Burana (Zornotza y Areatza).
- 250 aniversario de la Santa y Real Casa de la Misericordia (Bilbao).
- Non dira haurrak! (Bilbao).
- Bilboko Korala Gertutik (Bilbao).
- Bizkaia kantuan (Bizkaia).
- Ura bere bidean (BEC de Barakaldo).



- Fair Saturday kultur mugimenduan parte hartzea (Bilbao Arena).
- Eraztunen Jauna (Euskalduna Jauregia).
- Gabonetako Soinuak (Euskalduna Jauregia).
- Participación en el movimiento cultural Fair Saturday (Bilbao Arena).
- El señor de los Anillos (Palacio Euskalduna).
- Gabonetako Soinuak (Palacio Euskalduna).

Era berean, Gizarte eta Hezkuntza Proiektuak garatuko dira, hala nola "Eskola Kantari", Basauriko Espetxeko Abesbatzarekin eta Gorabide Elkarteko abesbatzarekin kolaborazioak, eta musika-ondarea berreskuratzeko jarduerak, obra berriak enkargatzeaz gain.

2024rako aurreikusitako jardueren programa garatu ahal izateko, erakundeak beste kontu batzuetarako finantzazioa ere behar du: partituren eta antzokien alokairua, egoitza sozialaren mantentze-lanak eta gastu arruntak (komunikazioak, garbiketa, elektrizitatea, etab.)

Urteko Jardueren Programako jarduerak egiteko gastuak 496.000 (laurehun eta laurogeita hamasei mila) euro dira, erakunde onuradunak aurkeztutako aurrekontua araztu ondoren.

Entitateak adierazten du ez dagoela sartuta foru-laguntzen onuradun izatea eragozpen duen ezein egoeratan (egoera horiek 5/2005 Foru Arauaren 12 artikuluan daude ezarrita), eta halaber adierazten du ez dagoela Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. Artikulua araberako onuradun izateko ezarritako debekuetan.

HIRUGARRENA.- Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera eta, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arau hori garatzen duen dirulaguntzen erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak ezarritakoaren babeseana, hitzarmenen bidez bideratuko dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan xedatutako dirulaguntza izendunak.

Ildo horretan, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2024. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 10/2023 Foru Arauan xedatutakoa dela bide,

Igualmente se desarrollarán Proyectos Socioeducativos tales como "Eskola Kantari", colaboraciones con el coro del Centro Penitenciario de Basauri, el coro de la Asociación Gorabide, así como actividades encaminadas a la recuperación del patrimonio musical además de realizar encargo de nuevas obras.

Para poder desarrollar el programa de actividades previsto para el año 2024 la entidad precisa financiar, igualmente, todo lo relacionado con el alquiler de partituras y teatros, mantenimiento de la sede social y gastos corrientes: comunicaciones, limpieza, electricidad, etc.

Los gastos a que ascienden las actividades a desarrollar que configuran el Programa Anual de Actividades, una vez depurado el presupuesto presentado por la entidad beneficiaria, son de 496.000 (cuatrocientos noventa y seis mil) euros.

La entidad manifiesta no encontrarse incurso en ninguna de las causas que, a tenor del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005 le imposibilitaría adquirir la condición de beneficiaria de subvenciones forales, y declara que no se halla incurso en ninguna de las prohibiciones para ser beneficiaria recogidas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

TERCERO.- Que conforme a lo dispuesto en el artículo 26 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, así como cuanto dispone el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, anteriormente citada, los convenios serán el instrumento habitual para canalizar las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

En este sentido, en virtud de la Norma Foral 10/2023, de 29 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2024, y con cargo a la



Bilboko Koral Elkarteari 127.000 (ehun eta hogeita zazpi mila) euroko dirulaguntza izenduna emango zaio 2024ko ekitaldian zehar Jardueren Urteko Programa zati batean finantzatzeko partida honen kargura: 0405, G/334104/45100/0000, 2007/0224 proiektua.

Hitzarmen hau Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dago, haren edukia kontuan hartuta. Izan ere, lege horren 6.2 artikuluan adierazten denez, haren eremutik kanpo geratuko dira sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuaren peko pertsona fisiko zein juridikoekin egiten dituzten hitzarmenak, haien edukia ez badago sartuta lege honetan edo nahiz administrazio-arau berezietan araututako kontratuen edukien artean.

Bestalde, aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza berdintasunaren arloan lanean. Ildo horretan, hitzarmen honek genero-ikuspegia jasotzen du, bai berau prestatzeko orduan bai beronen aplikazioan, kontuan hartuta zer adierazten den 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan.

Ildo horretatik, haren tramitazioan "generoaren arabera eragina aurretiaz ebaluatzeko txostena" erantsi da, 141/2013 Foru Dekretuaren 2. artikulua aipatzen duena.

LAUGARRENA.- Aurretik azaldutako helburuarekin, alderdiek Hitzarmen hau onetsi dute. Horren bitartez arautzen da, 2024rako Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 10/2023 Foru Arauan aurreikusten den dirulaguntza izenduna, Bilboko Koral Elkarteari alde. Hona hemen hitzarmenaren

ESTIPULAZIOAK

Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen helburua da Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2024. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 10/2023 Foru Arauan jasotako ehun eta hogeita zazpi mila (127.000,00)

partida presupuestaria, 0405, G/334104/45100/0000, proyecto 2007/0224, se prevé una subvención nominativa de 127.000 (ciento veintisiete mil) euros a favor de la Sociedad Coral de Bilbao para la financiación parcial de su Programa Anual de Actividades durante el año 2024.

El presente convenio se encuentra excluido como tal, y en función de su contenido, del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, dado que, tal y como señala su artículo 6.2 quedan excluidos del ámbito de dicha Ley los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales.

Por otra parte, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando ese campo. En esta línea, este convenio incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, y en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

En este sentido, en su tramitación se incorpora el «informe de evaluación previa del impacto en función del género» al que hace referencia el artículo 2 del Decreto Foral 141/2013.

CUARTO.- Que, con la finalidad expuesta anteriormente, las partes han consensuado el presente convenio, por el que se regula la subvención nominativa prevista en la Norma Foral 10/2023, de 29 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2024 a favor de la Sociedad Coral de Bilbao, a tenor de las siguientes

ESTIPULACIONES

Primera.- Objeto del Convenio

Es objeto del presente convenio la regulación de la subvención nominativa por importe cierto de ciento veintisiete mil (127.000,00) euros, prevista en la Norma Foral 10/2023, de 29 de diciembre, de Presupuestos



euroko zenbateko jakineko dirulaguntza izenduna arautzea. Onuraduna BILBOKO KORAL ELKARTEA (IFZ G48130215) da eta xedea 2024. urtean burutuko diren jardueren finantzaketa partziala da.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 16. artikulua onorioetarako, eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arau hori garatzen duen dirulaguntzen erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak ezarritakoaren babesean, onuradunak Aldundiak emandako dirulaguntza honekin batera beste edozein administrazio edo erakunderen laguntza ere jaso dezake hitzarmen honen xedea garatu eta burutzeko.

Hitzarmen honi dagokionez, dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira dirulaguntzaren xede den jardueraren izaerarekin zaltzarik gabe bat etorri, behar-beharrezkoak izan eta ezarritako epean egiten diren gastuak. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-balioa ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Zergak gastu diruz lagungarriak dira dirulaguntzaren onuradunak benetan ordaintzen dituenean. Inoiz ere ez dira gastu diruz lagungarritzat hartuko zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsa badaitezke, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin da inoiz izan dirulaguntza jaso duen jardueraren kostua baino handiagoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, finantzaketa propioa ere kontuan hartuta.

Bigarrena.- Finantzaketa

Bizkaiko Foru Aldundiak partez finantzatuko ditu BILBOKO KORAL ELKARTEAREN (NIF G48130215) 2024an garatuko dituen jarduerak. Horretarako, erakunde horri Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2024ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorreari buruzko abenduaren 29ko 10/2023 Foru Arauan aurrekontuko 0405 G/334104/45100/0000, 2007/0224 partidaren kargura zainpetuta dagoen ehun eta hogeita zazpi mila (127.000,00) euroko zenbateko jakina duen dirulaguntza izenduna emango dio.

Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2024 a favor de la SOCIEDAD CORAL DE BILBAO (NIF G48130215) para la financiación parcial de las actividades a desarrollar durante el ejercicio 2024.

A los efectos del artículo 16 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral, así como cuanto dispone el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, anteriormente citada, la presente subvención foral será compatible con cualquier otra que la beneficiaria recibiera de cualesquiera Administración o ente para el desarrollo y ejecución del objeto del presente convenio.

A los efectos del presente convenio se consideran gastos subvencionables, aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor del mercado.

Los tributos son gasto subvencionable cuando la persona beneficiaria de la subvención los abona efectivamente. En ningún caso se consideran gastos subvencionables los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación ni los impuestos personales sobre la renta.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia, supere el coste de la actividad subvencionada.

Segunda.- Financiación

La Diputación Foral de Bizkaia contribuye a la financiación parcial de las actividades a desarrollar durante el presente año 2024 por la SOCIEDAD CORAL DE BILBAO (NIF G48130215) mediante el abono a la misma de la subvención nominativa por importe cierto de ciento veintisiete mil (127.000,00) euros, consignada en la Norma Foral 10/2023, de 29 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2024, con cargo a la partida presupuestaria 0405 G/334104/45100/0000, proyecto 2007/0224.



Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuak Ogasun eta Finantzen Foru Sailaren aurrean dirulaguntza izapidetuko du, ordaindu ahal izateko. Horretarako ez zaio erakunde onuradunari inolako bermerik eskatuko, ez baita ikusten hitzarmen honen bitartez bereganatutako konpromisoak ez betetzeko arriskurik. Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, hitzarmen hau sinatu ondoren.

Nolanahi ere, Aldundiak betebeharra onartu eta dirulaguntza ordaindu aurretik egiaztatuko du ea Bilboko Koral Elkartea zergen arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituen eta laguntza itzultzeko ezartzen duen ebazpen baten zordun ez den. Baldin eta egiaztapenean antzematen bada erakunde onuradunak ez duela betetzen aurreko paragrafoan ezarritakoa, hamar (10) egun balioduneko epealdia emango zaio bere egoera erregularizatzeko, eta adieraziko zaio hori egin ezean Aldundiaren foru dirulaguntza jasotzeko eskubidea kenduko zaiola administrazio-ebazpen baten bitartez.

Hirugarrena.- Dirulaguntzaren justifikazioa

Dirulaguntzaren onuradunak hauek betetzeko konpromisoa hartu du:

a) Proiektua egin.

b) Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan (Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautu du foru arau horrek) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartutako dirulaguntzen araudiko 65. artikuluan xedatutakoaren arabera, erakunde onuradunak kontabilitateko egoera-orri auditatuak aurkeztuta egingo du proiektuaren justifikazioa (auditoreak Kontabilitatearen eta Kontu Auditoretzaren Institutuen menpeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta egon behar du jarduneko auditore gisa); justifikazio-kontu hori 2025eko irailaren 15era arte (egun hori barne) aurkeztu beharko du. Auditoriaren helburu den kontabilitateko informazioa onuradunak bete beharreko ordenamendu juridikoan ezarritako sistemaren arabera eginda egon behar da. Kontu-auditoreak jaso beharreko ordainsari osagarria diruz lagundutako proiektu osoari egotz dakioken gastutzat hartuko da.

c) Horrez gain, kontuen ikuskariak aurrekoaren txosten osagarria egingo du (Dirulaguntzen foru

La subvención será tramitada para su abono por parte del Servicio de Acción Cultural del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte ante el Departamento Foral de Hacienda y Finanzas, no exigiéndose para ello garantía alguna a la entidad beneficiaria, por cuanto no se aprecia riesgo de incumplimiento de las obligaciones asumidas en virtud de este convenio. Se abonará en un solo pago a la firma del presente convenio.

En todo caso, previo al reconocimiento de la obligación y al abono de esta subvención foral, se comprobará que la Sociedad Coral de Bilbao se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social y que no es deudora por resolución de procedencia de reintegro. Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que tal entidad incumple lo establecido en el párrafo anterior, ésta será requerida para que en el plazo de diez (10) días hábiles regularice tal situación con indicación de que, en caso contrario, pierde el derecho a la subvención foral, previa la correspondiente resolución administrativa.

Tercera.- Justificación de la subvención

La beneficiaria de la subvención se compromete a:

a) Realizar el proyecto.

b) Conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en el artículo 65 del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, la justificación del proyecto realizado por parte de la entidad beneficiaria se realizará mediante la presentación, hasta el 15 de septiembre de 2025 (incluido), de estados contables auditados, elaborados por auditor de cuentas inscrito como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas, debiendo estar la información contable objeto de auditoría elaborada conforme al sistema previsto en el ordenamiento jurídico al que esté sometida la persona beneficiaria. La retribución adicional que corresponda percibir a la persona auditora de cuentas tendrá la condición de gasto imputable a la ejecución del proyecto subvencionado en su totalidad.

c) Adicionalmente el auditor de cuentas realizará un informe complementario (art. 65.3 del Reglamento Foral



Erregelamenduaren 65.3 art.), datu hauek bilduko dituen:

1. Auditorea izendatu duen organoa eta onuraduna identifikatzea.

2. Dirulaguntza kudeatu duen erakundea identifikatzea.

3. Jasotako dirulaguntza identifikatzea, ematea ebatzi zuen ebazpena eta hori aldatu duten gaineko ebazpenak adieraziz.

4. Ikuskatu beharreko kontabilitate egoerak identifikatzea; txostenari eranskin gisa atxikiko zaizkio.

5. Dirulaguntzen Erregelamenduaren eta dirulaguntza arautu duen gainerako araudiaren erreferentzia.

6. Auditoreak egindako ikuskarpen prozeduraren xehetasunak, irismena eta laginketa teknikak, dirulaguntza egoki aplikatzeari buruzko zentzuzko ebidentziak lortu ahal izateko baliatutakoak.

7. Honi dagokionez egindako egiaztapenen emaitza:

- Diruz lagun daitezkeen gastuetarako finkatutako baldintzak betetzea, horien zenbatekoa, Sektore Publikoko Kontratuen berezko araudian finkatutako zenbatekoa baino gehiagokoa bada kontratu txikian. Dirulaguntzen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikulua betetzen dela egiaztatu beharko da, alegia onuradunak hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu gutxienez; hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun eta zerbitzuok hornitu edo egiten dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada.

- Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan jaso behar dira, edo, hala behar denean, dirulaguntzaren eskabidean; haien arteko hautapenerako irizpideak eraginkortasuna eta ekonomia izango dira. Eskaintza ekonomiko hoberena hautatzen ez bada, arrazoiak azaldu behar dira memoria batean.

- Hala badagokio, diruz lagundutako jardueraren kostuari dagokionez finantzazioa gehiegizkoa izan daitekeela identifikatzea.

de Subvenciones) al anterior que comprenderá los siguientes extremos:

1. Identificación de la beneficiaria y del órgano que haya procedido a la designación de la persona auditora.

2. Identificación del órgano gestor de la subvención.

3. Identificación de la subvención percibida, mediante la indicación de la resolución de concesión y demás resoluciones posteriores que modifiquen la anterior.

4. Identificación de los estados contables objeto de revisión, que se acompañarán como anexo al informe.

5. Referencia al Reglamento Foral de Subvenciones y al resto de normativa que regula la subvención.

6. Detalle de los procedimientos de revisión llevados a cabo por la persona auditora, su alcance y técnicas de muestreo que le hayan permitido obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención.

7. Resultado de las comprobaciones realizadas respecto a:

- El cumplimiento de las condiciones establecidas para los gastos subvencionables cuyos importes superen las cuantías establecidas en la normativa propia de los Contratos del Sector Público para el contrato menor. Se deberá verificar que en cumplimiento del artículo 29.3 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, de Subvenciones, la beneficiaria ha solicitado como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiere realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.

- La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o, en su caso, en la solicitud de la subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

- Identificación, en su caso, del posible exceso de financiación obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada.



Laugarrena.- Jarraipen batzordea

Sinatzaileek dituzten betebeharrak eta hitzarmen honen xedea egoki gauzatzeko antolamendu juridikoak ezarritakoak betetzeko, eta jasotako funtsak egoki erabili direla kontrolatzeko, alde biko jarraipen-batzordea eratuko da, kide hauek izango dituen: Kulturako zuzendari nagusia edo hark eskuordetutako pertsona eta Kultur Ekintzako Zerbitzuko burua edo hark eskuordetutako pertsona, Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik, eta Bilboko Koral Elkarteko bi ordezkari, erakundeak berak izendatutakoak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 22 artikulua jasotzen duena betez.

Batzorde horren burua Kulturako zuzendari nagusia izango da edo berak eskuordetutako pertsona; bertako idazkaria Kultur Ekintzako Zerbitzuko burua edo hark eskuordetutako pertsona izango da.

Batzorde hau urteko azken hiruhilekoan bildu behar da, nahitaez, hitzarmenaren emaitza ebaluatzeko. Nolanahi ere, hitzarmena indarrean den bitartean, alderdiek nahi beste bilera-deialdi egin ditzakete.

Jarraipen Batzordeari buruz hitzarmenak beren-beregi aurreikusi ez duenerako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluko II. kapituluko 3. atalak arautzen duen kide anitzeko organoen araubide juridikoa aplikatuko da.

Bosgarrena.- Indarraldia

Hitzarmen hau indarrean jarriko da sinatzen den egunean bertan, nahiz eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko den ondorioak izaten; indarraldia 2024ko abenduaren 31ra arte luzatuko da, dirulaguntzaren gaineko justifikazioari buruzko xedapenei eta horren ekonomia- eta finantza-kontrolari dagokienez salbu.

Seigarrena.- Onuradunaren betebeharrak

Bilboko Koral Elkartea nahitaez bete behar du Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide orokorra ezarri duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 13. artikuluan xedatutakoa.

Cuarta.- Comisión de Seguimiento

A los efectos de dar cumplimiento a las obligaciones asumidas por las partes suscribientes así como a las impuestas por el ordenamiento jurídico en aras a la correcta ejecución del objeto de este convenio y a la adecuada aplicación de los fondos recibidos, se constituirá una Comisión de Seguimiento bipartita compuesta por la directora general de Cultura o persona en quien delegue y la jefa del Servicio de Acción Cultural o persona en quien delegue, por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, y dos representantes de la Sociedad Coral de Bilbao designados por esta, dando cumplimiento a lo establecido a tal efecto por el artículo 22 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Dicha Comisión estará presidida por la directora general de Cultura o persona en quien delegue, ocupando la Secretaría la jefa del Servicio de Acción Cultural o persona en quien delegue.

La misma se reunirá obligatoriamente durante el último trimestre del año en aras a evaluar el resultado final de la ejecución del presente convenio, sin perjuicio de que puedan ser convocadas otras reuniones durante el período de vigencia del mismo, a instancias de cualquiera de las dos partes interesadas.

En lo no previsto expresamente en el convenio sobre la Comisión de Seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en la sección 3ª del capítulo II del título preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Quinta.- Vigencia temporal

El presente convenio entrará en vigor el día de su firma, si bien sus efectos se producirán desde el 1 de enero de 2024, extendiendo su vigencia hasta el 31 de diciembre de este mismo año, salvo en lo relativo a las disposiciones sobre justificación de la subvención y control económico-financiero de la misma.

Sexta.- Obligaciones de la beneficiaria

La Sociedad Coral de Bilbao quedará obligada al cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral.



Halaber, dirulaguntza publiko bat jasotzeak berekin dakar erakunde onuradunak maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 33. artikuluan eta baterakoetan ezarritakoa bete behar izatea.

Gainera, Bilboko Koral Elkartek Bizkaiko Foru Aldundiak emandako laguntzaren berri emateko konpromisoa hartzen du; horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren ikurra jarriko du pankarta, kartel eta hedapenerako gainerako euskarri guztietan Foru Aldundiak proiektu honi emandako babesak agertzeko.

Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren irudi korporatiboan ezarritako elementuak baliatuko dira, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da, hitzez hitz:

«Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».

Euskara hutsean garatutako proiektuetan, euskararen txantxangorriaren irudia sartu beharko da ere.

Dirulaguntza honen erakunde onuradunak konpromisoa hartzen du, halaber, euskara erabiltzeko diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan. Era berean, liburuxka, kartel edo herriarrei beren jardueraren berri emateko erabiltako beste euskarri guztietan bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte.

Onuradunak betebeharrak hauek ere izango ditu:

- Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizioan, sarbidean, kontratazioan eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasunean eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonala, lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikalean, ordezkaritza eta negoziozko kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalagezkoak bermatuta.

- Zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein

En idéntico sentido, la concesión de subvención pública conlleva que la beneficiaria quede sujeta a lo dispuesto en los artículos 33 y concordantes de la mencionada Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

Asimismo, la Sociedad Coral de Bilbao se compromete a difundir la colaboración prestada por la Diputación Foral de Bizkaia incluyendo en las pancartas, carteles y cualquier otro medio de difusión el apoyo foral de este proyecto insertando el logotipo de la Diputación Foral de Bizkaia.

Para ello se utilizarán, obligatoriamente los elementos establecidos en la imagen corporativa de la Diputación Foral de Bizkaia, incluyendo junto al logotipo la siguiente frase literal:

«Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».

En los proyectos desarrollados íntegramente en euskera, deberá incluirse, además, la imagen del "Txantxangorri del euskera".

La entidad beneficiaria de la presente subvención se compromete así mismo a utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada. Igualmente, en todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado para dar publicidad de su actividad a la ciudadanía deberán utilizarse las dos lenguas oficiales.

La beneficiaria estará igualmente obligada a:

- Promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral y familiar, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias.

- Velar por que el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales



kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.

- Diruz lagundutako proiektua gauzatzen den bitartean, ez erabiltzea hizkera sexistarik dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan eta gisakoetan (idatzizkoetan zein digitaletan), eta pertsonen buruzko edozein estatistikatan datuak sexuaren arabera bereiz jasotzea, hala ezartzen baitu arlo horretan gorde behar diren printzipio nagusiak jasotzen dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3 artikulua.

Aurrekoaz gain, entitate onuradunak laguntza eman behar du, eta foru-administrazioako organoek nahiz arautegi erkidearen arabera finantza-kontrolako eginkizunak eratzikita dituzten organoek eskatzen dizkieten agiri guztiak eman beharko ditu, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 41. artikulua xedatzen duena betez.

5/2005 Foru Arauko 27. artikulua xedatu lege, entitate onuradunak azpikontratatzeko ezarritako baldintza eta debekuen erregimena bete beharko du. Lagundutako jarduerari dagokion zenbatekoaren % 90 azpikontratatu ahal izango da, gehienez.

Dirulaguntza honen onuradunak jakinarazi beharko du helburu bererako, estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso izana.

Zazpigarrena.- Itzulketa

Jasotako dirulaguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, hitzarmen honetan ezarritako betebeharren bat betetzen ez bada edo Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 33. artikuluan edo Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Erregelamenduan aurreikusitako kausaren bat gertatzen bada, besteak beste:

generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

